



3, 2, 1 Forma Eszeniko Berrien Nazioarteko Topaketa

ALHÓNDIGABILBAOK FORMA ESZENIKO BERRIEN

NAZIOARTEKO TOPAKETAREN EDIZIO

BERRI BAT ANTOLATU DU

- AlhóndigaBilbaon egingo den topaketa honetako bigarren edizioa izango da. Bertan, munduko adierazpen ezberdinetako eszena sortzaile garaikideek parte hartuko dute hiru edizioetan: 3 (2013), 2 (2014), 1 (2015)
- Nazioarteko Topaketa honetan Frantzia, Austria, Quebec edo Koreatik etorritako artistak izango dira.
- ‘3, 2, 1’ topaketa sortzaile hasiberri zein ospetsuak batzen dituen foroa da. Bertan, performance, dantza eta egungo antzerkiaren kontzeptu berrikusia aurkeztuko dute.
- Maiatzaren 26tik 31ra AlhóndigaBilbaon ikuskizun kolektiboak eta hamar minutuetako planteamendu artistikoak ikusi ahal izango dira. Live art, performance, antzerkia, dantza, instalazioak, espazio publikoetako interbentzioak edo arkitektura suntsikorra bezalako kontzeptuek ikusleak protagonistak diren topaketa honetan parte hartuko dute.
- Maiatzaren 26tik 31ra AlhóndigaBilbaok proposamen artistiko ez-konbentzionalak hartuko ditu zentroaren eszenatoki ezberdinetan.



- **Aurten topaketan, disziplinen arteko lankidetzan, antzerkiaren forma ezberdinetan, dantzan, live artean eta hurbileko herrialde europarren (Frantzia, Austria, Portugal edo Suitza) arteko erlazioetan jarriko da arreta.**
- **Nazioarteko sorkuntza eremu honetan, AlhóndigaBilbaok, modu paraleloan MOV-S programa hartuko du, Bartzelonako Mercat de les Florsen ekimena hartuko du. Bertan artisten eta dantza eta mugimenduko artearen antolatzaileen arteko elkartzeko eta lankidetzako bideak bultzatzen dira. Ekimen honek Eusko Jaurlaritzaren eta Etxepare Institutuaren laguntza du.**
- **Nazioarteko sortzailetza honen inguruan, modu paraleloan, MOV-S programa egingo da. Bartzelonako Mercat de les Florsen bultzatuta, artisten eta dantza eta mugimenduan egindako artearen antolatzaileen arteko bilguneak proposatzen dira bertan.**

Bilbo, 2014ko maiatzaren 5a. Maiatzaren 26tik 31ra bitartean AlhóndigaBilbaok 3,2,1 Forma Eszeniko Berrien Nazioarteko Topaketa hartuko du.

3 edizio izango dituen programa honek, aurreko urtean hasi zen eta datorren urtean amaituko da. 2014an performancea, dantza eta egungo antzerkia berrikusiko dituzten hainbat proposamen artistiko elkartzeko dira. Hiru disziplina hauek elkarrekin eta gai, kontzeptu eta sinergia ezberdinak planteatzen dituzten beste arte mota ezberdinekin erlazionatzen dira.



3,2,1 Forma Eszeniko Berrien Nazioarteko Topaketan, ikuspegi eta jaotri ezberdinetako sortzaileek, gune berean kontzeptu arrunten berrikusketak eta ikuspegiak aurkeztuko dituzte. Zuzeneko eta orokorreko arteari buruzko ikuspegiak ezagutuko dira publikoak behin bakarrik ikus/bizi dezaketen momentu bakarreko esperientzia gisa.

Probatzean, berritzean, kritikoa izatean, aurkeztean eta irudikatzean datza. Sortzaile hasiberri zein ospetsuek ez-konbentzionalari buruz dituzten proposamenak egingo dituzte aldatzen joango diren toki eta formatuetan. Errutinarekin apurtzeko gonbit eginda, baita gure egunerokotasunetik harago joateko ere, eta, batez ere, egunez egun gurekin batera bizi diren eta aldiro, ia kasualitatez, gurutzatzen diren artisten artean konplizitatea sortzeko.

Aurten topaketak disziplinen arteko lankidetzaz izango du ardatz. Baita antzerkiaren forma ezberdinak, dantza eta live art delakoa eta europako herri hurbilekin dagoen erlazioa ere: Frantzia, Austria, Portugal edo Suitza. Bestalde, edizio honetan bertoko artisten presentzia nabarmena izango da, hala nola: Ion Munduate, Blanca Calvo, Xabier Erkizia, Ainara Legardón, Elssie Ansarea, Maria Ibarretxe eta Alaitz Arenzana.

3,2,1 AlhóndigaBilbaoren Zuzeneko Arteen programazioaren barruan dago. Edukia topaketatik harago doa, adierazpide ezberdinetako sorkuntza eszenikoaren inguruko dibertsitate eta lengoaiari ekiteko 2010. urtean zentroa ireki zenetik garatu izan den programazio egonkor baten bitartez.

Aurreko edizioan 6.000 pertsona inguruk parte hartu zuten eta nabarmena izan zen espainiar eta europar programatzaileen presentzia.



Eszenatoki ezberdinak

3,2,1 Topaketa AlhóndigaBilbaoko gune ezberdinetan egongo da: Ataria, auditoriuma, Bastida Aretoa, Laborategi Aretoa, Erakusketa Aretoa, JOZ, Argizuloa... Leku guzti hauek adierazpen artistiko ezberdinetako eszenatoki bihurtuko dira egun hauetan.

Honez gain, hitzordu ibiltariak egongo dira gune ezberdinen bidez izango diren ibilbideei esker.

MOV-S

Nazioarteko sortzailtzaren testuinguruan, modu paraleloan, MOV-S programa egingo da, Bartzelonako Mercat de les Florsen ekimena. Bertan artisten eta dantza eta mugimenduko artearen antolatzaileen arteko elkartze eta lankidetzak bideak bultzatzen dira. Bere bostgarren edizioan, MOV-S proiektu nomada gisa proposatu da. Martxoan Galizian egin zen eta orain Bilbora heltzen da AlhóndigaBilbaok, Etxepare Euskal Institutuak eta Eusko Jaurlaritzak antolatuta. Programazioaren profesionalak, espazio publikoetako zuzendaritzak, kulturaren kudeaketa edo bitartekaritzak, maiatzaren 30 eta 31an AlhóndigaBilbaon elkartuko dira konposizio tailerretan, baita zuzeneko arteen kudeaketa egiteko prototipoen eta Euskadin lan egiten duten artisten proiektu eszenikoen aurkezpenean ere. Bilbotik igaro ondoren, MOV-S 2014 Mexiko eta Txilera helduko da.

VK Comunicación

**Para más información:
M^a José Sánchez Robles
Telf: 94 401 53 06
626 815 610**



prensa@alhondigabilbao.com
mjsanchez@vkcomunicacion.com